

HAU GUZ(T)IA

Erakusle bat *guzti* hitzarekin egokitzen denean, euskal testu zaharretako joskeran erakuslearen ondoren etortzen zen beti *guzti*, eta *hau guzior*, *hau guztiau* bezalako moldeak alde batera utzirik, *guzti*-k artikulua eta erakuslearen kasu atzizki bera hartzen zuen, adibidez:

Ethorriko dirade gauza hauk guziak nazione hunen gainera (Lç Mt 23,36).

Liburu hau guztia duk bi partetan berezten (Etxeberri Z MD/ 5).

Egun a guztia bapere bekatu gabarik emoteko (Añib EL2 90).

Teresak konbentu barri oneek guztiok [...] eginda, bialdu zituban bere semiak eta alabak Pranzijara (Bartolome II 296).

Orobat erakuslea izenordain gisa ari denean:

Baina haur guzia egin izan da konpli litezenzat Profetén Skripturák (Lç Mt 26, 56).

Orietan guzietan bat banaka konsiderazio andiarekin pensatuaz (O. de Arin 70).

Au guzia dakizula, zorakeria oriekiñ zabiltza? (Agirre A III 530).

Ez oraino horiekin guziekin etzuken merezi zeruko zoriona (Duhalde 172).

Geroago, Hegoaldean, *guzti hau*, *guzti haietan* bezalako joskerak agertzen hasi ziren. Lehen agerraldia, XVIII. mendean bakarra, antza denez, Ubillosena da: *Zer esan nai du guzi onek?* (199). XIX. mendean eta XX.aren lehen erdialdean gero eta gehiago ikusten dira joskera hauek, eta azken urteetan, jakina denez, gutxi dira joskera zaharrari eusten diotenak. Azpimarratu behar da aldakuntza hori Hegoaldean soilik gertatu dela, eta ondorioz, puntu honetan tradizio zaharrea zegoen batasuna hautsia gertatu dela. Hortaz,

Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du *hau guz(t)ia*, *bide hartan guz(t)ian*, *horiekin guz(t)iekin* eta *kidekoak hobestekoak direla batasunaren izenean. Eta orobat *gauza hauek guz(t)iak* eta *honen kidekoak*. Beraz, *hau guz(t)ia* eta *guz(t)i hau* esapideen artean, lehena da hobesten dena. Eta berdin gertatzen da *bide hartan guz(t)ian* / *bide guz(t)i hartan*, *horiekin guz(t)iekin* / *guz(t)i horiekin* eta *hauen antzeko bikoteetan*. Denetan lehen aldaera da *hobestekoak*.*

Hala ere, *hau guz(t)ia* eta *hori guz(t)ia* formekin batera *hau guz(t)iau* eta *hori guz(t)iori* ere oso bidezkoak dira (*ez*, *ordea*, **gizonau* bezalakoak, *jakina*). Halaber, *hauek guz(t)iok*, *horiek guz(t)iok*, (*gauza*) *hauek guz(t)iak*, *horiek guz(t)iak* eta *haiek guz(t)iak* formak.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)